

IRAKASKUNTZA-GIDA

2014/15

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Gasteiz)

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25937 - Gizarte Zerbitzuen Oinarriak

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

EDUKIAREN DESKRIBAPENA:

Lehenik eta behin gizarte zerbitzuak ulertzeko oinarrizko kontzeptuak eta hauen inguruko sarrera orokorra eskeintzen da. Ondoren, gizarte ekintzaren bilakaera historikoa aurkezten da, bertan arreta berezia ematen zaio bilakaera honetan aurkitu daitezkeen haustura eta jarraikortasunei. Bilakaera historikoarekin bukatu ondoren, gizarte zerbitzuetako ezaugarri nagusiak, testuinguru juridikoa eta hauen eskumenen banaketa aztertzen dira. Era berean, gizarte zerbitzuak eta genero perspektibaren artean dagoen harremanean ere sakontzen da, honen bidez arlo honetako zeharkako azterketa egin ahal izateko. Azkenik, gizarte zerbitzuetako arreta maila ezberdinak lantzen dira eta azken gai honen bidez bidea irekitzen zaie gai hauek sakonean landuko dituzten irakasgaiari.

GAITASUNAK:

- Estatu, zein erkidego edota tokiko gizarte zerbitzuen ekintza eta hornidura ezagutzea eta ikasketa-objetuaren inguruko sarrera eskeintzea. Horrela, lehenengo gerturapen honen bidez gizarte zerbitzuak eta beste esku-hartze motak ondo bereiztea nahi da.
- Gizarte zerbitzuen populazio-sektoreak ezagutzea eta bereizte.
- Gizarte zerbitzuen arreta maila ezberdinak bereiztea eta bakoitzaren ezaugarri nagusienak ezagutzea.
- Gizarte ekintzaren garapen historikoan sakontzea. Honen bidez gaur egungo gizarte zerbitzuekin konparatu ahal izateko eta hauen arteko aldaketak eta jarraikortasunak azpimarratzeko.
- Gaur egungo gizarte zerbitzuetako arazo eta erronka nagusien inguruko eztabida eta gogoeta sustatzea.
- Gizarte zerbitzuei loturiko elementu teoriko zein egoera praktikoen inguruko gogoeta kritikoa gauzatzeko almena sustatzea.
- Elkarkidetzeta, laguntza eta enpatia bultzatzen duen taldeko lana bultzatu.
- Lan autonomia eta ikertzeko ahalmenarako tresnak eskeintzea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. GAIA: GIZARTE ZERBITZUEN KONTZEPTUA ETA IZAERA.
 - 1.1. Giza eta gizarte beharizanak.
 - 1.2. Gizarte beharizanei emandako erantzuna: baliabidea.
 - 1.3. Gizarte zerbitzuen populazio sektoreak.
 - 1.4. Gizarte zerbitzuen printzipioak.
 - 1.5. Gizarte zerbitzuak: kontzeptua.
 - 1.6. Beste disziplinekiko harremana.
2. GAIA: GIZARTE EKINTZAREN EBOLUZIO HISTORIKOA (I): KARITATETIK ONGINTZARA.
 - 2.1. Gizarte ekintza Aintzinaroan.
 - 2.2. Gizarte ekintza Erdi Aroan.
 - 2.3. Gizarte ekintza Errenazimenduan.
 - 2.4. Gizarte ekintza XVIII. mendean: Ilustrazioa.
3. GAIA: GIZARTE EKINTZAREN EBOLUZIO HISTORIKOA (II): ONGINTZATIK GIZARTE ZERBITZUETARA
 - 3.1. Gizarte ekintza XIX. mendean.
 - 3.2. Gizarte ekintza XIX. mendean Espainian.
 - 3.3. Gizarte ekintza XX. mendean Espainian.
4. GAIA: GAUR EGUNGO GIZARTE ZERBITZUEN OINARRIAK: GIZARTE ESKUBIDEAK.
 - 4.1. Ongizate Estatuaren Sorrera: Bismarck eta beste zenbait aintzindari.
 - 4.2. Ongizate Estatuaren pobrezia: Gizarte ongizatea.
 - 4.3. Gizarte Zerbitzu Publikoen Oinarria.
 - 4.3. Espainiako eta EAEko Gizarte Zerbitzuen marko juridikoa.
 - 4.4. Ongizate Estatuaren Krisia.

5. GAIA: GENERO PERSPEKTIBA GIZARTE ZERBITZUETAN.

- 5.1. Sarrera
- 5.2. Genero eta genero perspektiba
- 5.3. Genero-perspektiba politika publikoetan integratzeko neurriak
- 5.4. Genero-perspektiba eta Ongizate Estatuaren oinarritzko hitzarmena
- 5.5. Generoa eta gizarte zerbitzuak

6. GAIA: GIZARTE ZERBITZUETAKO HORNITZAILEAK ETA ARRETA MAILAK.

- 6.1. Gizarte zerbitzuen hornitzaileak.
- 6.2. Gizarte zerbitzuen arreta mailak.

OINARRIZKO LEGEDIA:

- Espainiar Konstituzioa.
- EAE-ko Autonomi Estatutoa.
- Gizarte Zerbitzuetako Legeak (1982, 1996 eta 2008. urteko legeak)

METODOLOGIA

- Klase magistralak: Klase hauetan edukin teoriko nagusienak aurkeztuko dira. Era berean, ikaslearen ikerketa eta analisi kritikorako beharrezkoak diren tresnak eskeiniko dira. Klase hauetan ikaslegoaren partehartze kritikoa bultzatuko da.
- Mintegiak eta jarduera praktikoak: Kasu honetan ikaslegoaren garrantzia erabatekoa da, saio hauek talde zein norbanakoaren ekarpenen arabera egituratuko baitira. Aurkezpenei arreta berezia eskeiniko zaio, honen bidez jendearen aurreko trebetasunak bultzatu ahal izateko.
- Lan autonomia: Kasu honetan talde zein norbanakoek egindako lanak izango dira. Momentu oro, irakaslearen etengabeko gainbegiraketa egongo da.
- Tutoretzak: Saio hauetan irakasleak klase teoriko, mintegien prestaketan edota lanen ebaluazioren inguruko zehaztapenak eta eztabaiden argipenak egingo ditu.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

Legenda:

M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.
 GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia %
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) %
- Banakako lanak %
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) %
- Lanen, irakurketen... aurkezpena %

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Bi ebaluazio mota izango dira:

A BIDEA: KLASERA ETORRITA

Bide hau ohikoa izango da eta baldintza klasera %70ean etortzea izango da. Azterketa idatziak notaren %70. Irakasgaia aprobatzeko azterketan 2,8 atera beharko da (7aren gainean). Praktiak eta klasean partehartzea notaren %30.

B BIDEA: KLASERA ETORRI GABE EDO GUTXI ETORRITA

Ez ohiko bidea. Bide hau aukeratzeko ikasleak irakaslearekin hitz egin beharko du kurtso hasieran. Kurtso erdian bide batetik bestera pasatzea ez da onartuko. Azterketa idatziak %70. Irakasgaia aprobatzeko azterketan 2,8 atera beharko da (7aren gainean).

Egin beharreko lanak eta praktikak %30.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- ALEMAN, Carmen / GARCÍA, Mercedes (1999): Fundamentos de Bienestar Social, Valencia: Tirant lo Blanch
- ALEMAN, Carmen / FERNANDEZ, Tomás (2004): Introducción a los Servicios Sociales, Madrid: Universidad Nacional de Educación a Distancia
- CASADO, Demetrio / Gillén, Encarna (2001): Manual de Servicios Sociales, Madrid: CSS
- FANTOVA, F. (2008): Sistemas públicos de servicios sociales: Nuevos derechos, nuevas respuestas, Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.
- GALLEGO, Mari Jose / GONZALEZ, Mercedes (1997): Aproximación a la Acción Social y a los Servicios Sociales, Huelva: Cuché
- Seminario de Historia de la Acción Social (1986): De la beneficencia al bienestar social. Cuatro siglos de acción social, Madrid: Siglo XXI
- ROLDÁN, Elena y GARCÍA, M^a Teresa (2005): Políticas de servicios sociales, Síntesis, Madrid.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

- www.siiis.net Gizarte politika eta zerbitzuetako dokumentazio zerbitzua.
- www.fantova.net Gizarte zerbitzuetan aditua den Fernando Fantovaren web orrialde pertsonala. Bertan txosten, artikulua eta material interesgarriak topa daitezke.

OHARRAK